

Ezkontzak % 24 gehitu ziren 2003ko lehen hiruhilekoan

2003ko lehen hiru hilabeteetan, gehiago izan ziren ezkontza zibilak, erlijiozkoak baino

Euskal AEn 1.204 ezkontza izan dira 2003ko lehen hiruhilekoan, hau da, 2002ko laugarren hiruhilekoan egindako 2.132 ezkontzen erdia baino gehixeago, nahiz eta 2002ko lehen hiruhilekoan egindakoak baino 229 gehiago (% 23,5) ere izan diren, Eustaten datuen arabera. Ohikoa denez, urteko lehen hiruhilekoan ezkontza gutxi egiten da, batez ere urtarril-otsailetan.

Aurreko urteetan geratu den bezala, ezkontza zibilen ehunekorik handiena hiruhileko horretan izan da, erlijiozko ezkontzak baino gehiago izan baitira; beraz, badirudi gertaera hori sendotu egin dela. Probintziak, Araban izan dira ezkontza zibilak nagusien (% 73), aurreko urteko aldi berean izandako proportzioa (% 64) oso nabarmen handitu baita. Bizkai-Gipuzkoetan (% 59), 2002ko lehen hiruhilekoko ehunekoari bere horretan eutsi diote. Autonomia Erkidegoaz kanpo bizi arren erkidego honetan ezkondu zirenei dagokienez, ehuneko hori % 30ekoa izan zen.


2003ko lehen hiruhileko horretako 1.204 ezkontzetan, bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duten 1.171 gizonezko eta 1.186 emakumezko ezkondu ziren. Horietatik 1.057 senarrentzat (% 90), lehen ezkontza izan zen; 12 alargun eta 102 dibortziatu, aldiz, berriro ezkondu ziren. Lehen ezkontza zuten emakumeen ehunekoa gizonezkoen antzekoa izan zen: aurretik ezkongabe zirenak 1.073 izan ziren; alargunak, 8; eta dibortziatuak, 105.

Ezkontzak ezkontideek eztei-egunean zuten adinaren arabera banatuz gero, senarren artean, % 73k zituzten 30 urtetik gora; emazteen artean, berriz, % 57k. Kopuru horiek aurreko urteko hiruhileko berekoak (% 71 eta % 56, hurrenez hurren) baino handiagoak dira; eta, era berean, 2002ko urte osoan izan zirenak baino altuagoak dira. Horrenbestez, beste hiruhileko bat gehiagoz, mantendu egin da biztanleak zaharrago ezkontzeko joera.

	2003ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2002ko 4. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2002eko 1. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	1.204		2.132		975	
Kanonikoak	480	39,9	1.179	55,3	409	41,9
Zibilak	724	60,1	953	44,7	566	58,1
SENARGAIK	1.171		2.035		934	
Ezkongabeak	1.057	90,3	1.892	93,0	846	90,6
Alargunak	12	1,0	19	0,9	8	0,9
Dibortziatuak	102	8,7	124	6,1	80	8,6
EMAZTEGAIK	1.186		2.100		964	
Ezkongabeak	1.073	90,5	1.956	93,1	868	90,0
Alargunak	8	0,7	9	0,4	9	0,9
Dibortziatuak	105	8,9	135	6,4	87	9,0

Iturria: EUSTAT

1. Grafikoa: Ezkontzen hilez hileko mugimenduak



Iturria: EUSTAT

oinarria 100= b.b.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: 49-945 017 534. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es